

KUKAI-TANTTAKA

hnujiija

J. Sarrionandia
poesia

KOREOGRAFIA


Jon Maya

MUSIKA

Iñaki Salvador

ZUZENDARITZA

Mireia Gabilondo



hnuy illa...

IZEN ULERTEZINA ETA AHOSKATZEKO EZINEZKO HORREN ATZEAN
ALTXOR BAT EZKUTATZEN DA.

HNUY ILLA... HASIERA BESTERIK EZ DA...

Joseba Sarrionandiak 1995. urtean euskal literaturan mugarri izan den poema liburua argitaratu zuen: 'Hnuy illa nyha majah yahoo'. Bertan, 1985 eta 1995. urteen artean idatzitako olerkiak biltzen ditu. Olerki inspiratzaileak, iradokitzaileak, ameslariak, bidaiariak, iheslariak...



Eta iturri horretatik edan du Kukai Dantza dantzak ikuskizuna sortzeko. Hau da, HNUY ILLA' 'Hnuy illa nyha majah yahoo' liburutik aukeratutako poesiaetan oinarritutako dantza ikuskizuna da.



*Ate bat irekitzea bezala da,
zerbait berria gerta dadin. Tonu
ez izugarri alaiarekin,
malenkoniatsuarekin apika...
eta pozkorrarekin.*


Dantzatik, kantutik, musikatik, irudietatik arnastuko dugu poesia. Sarrionandiak irekitzen digun leihotik begiratuko diogu munduari.

25. urtemuga baliatuko dugu liburuaren eta ikuskizunaren berrargitalpen bat egiteko. Egindakoak jaso, berritu eta publikoaren esku jarri dugu hain kuttun dugun proiektua.

Kukai Dantzak, dantza tradizionalaren eta garaikidearen arteko bizikidetzan, egindako lehenetariko lanaren errebisio gaurkotu bat egingo du. Musika arloan, Sarrionadiaren poesia musika bihurtzen maisu izan da **Mikel Laboa**. Eta Laboarekin batera, haren kide banezina: **Iñaki Salvador**. Haien musika izango da ikuskizunaren soinu bandaren oinarria, Ruper Ordorika eta Maria Berasarte bezalako kolaborazioak bilduta.



Espazio eszenikoa ikuskizun honen elementu bereizgarrietako bat da baita ere. Bi oihalen eta ikus-entzunekeo lan berezi batek osatutako espazio eszenikoaren erdian kokatzen da ekintza, unibertso oniriko zein majiko bat eta lau dimentsiotako erralitate bat sortuz. Elementu hauek guztiak, Mireia Gabilondok josi ditu sentzibilitate handiz.



Bidaia onirikoa abian da.
Unibertso poetikoan barneratu gara.
Antzerkia, dantza, literatura, ikus-entzuneazkoak, euskara... zipriztinduta.

FITXA ARTISTIKOA

Poemak: Joseba Sarrionandia

Eszena zuzendaritza: Mireia Gabilondo

Koreografia: Jon Maya Sein

Dantzariak: Alain Maya, Aritz Lopez, Ibon Huarte, Izar Aizpuru, Leire Otamendi, Nerea Vesga, Urko Mitxelena

Musika: Iñaki Salvador

Argiztapen diseinua: Xabier Lozano

Ikus-entzunezkoen diseinua: David Bernués

Jantzien diseinua: Ana Turrillas

Kolaborazio bereziak: Mikel Laboa, Ruper Ordorika, Maria Berasarte...

...nyha majah yahoo